# Arkide

Okondoko herriaren aldizkaria
#15
2020ko ABUZTUA / AGOSTO



# Abuztu kulturala izango da Okondon

Okondoko Udalak kultura ekintzak eskaintzen jarraituko du abuztuan. Esaterako, egitarau berezia egongo da hilaren 24an, herriko patroiaren egunean. Ekitaldi berezi horretara bertaratzen diren guztiei jaietako zapia eramateko deia egin die udalak.

Zehazki, burbuiletan murgilduta hasiko dute eguna herritarrek. Izan ere, xaboi-burbuila erraldoiak egiteko gailua abian jarriko da 12:00etan. Arratsaldean, 18:30ean, Iñigo Salinero aktorearen bakarrizketaz gozatzeko aukera izango dute okondoarrek. Jarraian, 21:30ean, Salinerok parte hartu duen *La Pequeña Suiza* filma izango da ikusgai.

Abuztuaren 31n, ordea, Magialdiak izango du protagonismo osoa. Hasteko, 18:00etan tailerrak egongo dira 7 eta 12 urte bitarteko umeentzat futbol zelaiko karpan. 19:30ean leku berean Kidam Magoaren ikuskizuna eskainiko dute.

**Prebentzio neurriak**

Uztailean bezala, udalak antolatutako jarduera guztiak futbol-zelaiko karpan eskainiko dira, COVID-19 birusaren aurrean beharrezkoak diren neurri guztiak bermatzeko. Programazioa egunetan zehar egongo da banatuta eta, orain arte bezala, ekitaldi bakoitza amaitzen denean eremuaren desinfekzio-protokoloa gauzatuko dute udal langileek. Bestetik, osasun publikoa babeste aldera, herritarrek segurtasun distantzia mantendu eta maskara eraman behar dutela gogorarazi dute.

*Durante agosto Okondo no detendrá su programación cultural. El 24 las actividades comenzarán a las 12:00 del mediodía y se prolongarán hasta la noche. El 31 Magialdia ofrecerá talleres infantiles y un espectáculo con el mago Kidam.*

**ALBISTEAK** NOTICIAS

# Pautas para el buen uso de los servicios de recogida de residuos




De cara a mantener limpio el municipio, es fundamental respetar las normas de uso de los espacios públicos, así como las relativas a los contenedores y otros servicios. Para ello, es necesario separar los residuos en origen y depositarlos de forma ordenada. Cabe recordar que más del 50% de la basura doméstica es orgánica, por lo que se recomienda a las y los vecinos que se adhieran al servicio de recogida de esta materia para reducir el impacto en el medio ambiente. Las personas interesadas pueden solicitar un kit en el Ayuntamiento. Los restos de poda de pequeño tamaño o césped pueden depositarse en el contenedor de basura orgánica o compostarlo en casa. El Ayuntamiento atiende a los y las vecinas que quieren iniciarse en la práctica del compostaje. Por otro lado, es de gran importancia hacer un buen uso del servicio de recogida de voluminosos, que se lleva a cabo el primer miércoles del mes y se solicita llamando gratuitamente al 900 10 14 76 o mediante la app *Línea Verde*. En caso de querer depositarlos en el Garbitxiki, se debe notificar previamente en el consistorio o, en su defecto, llevarlos al Garbigune de Laudio. A la ropa, libros, juguetes u otros objetos se les puede dar una segunda vida por medio del contenedor blanco. Por último, si se vierte el aceite doméstico al contenedor naranja, se evita contaminar miles de litros de agua.

*Udalerria garbi mantendu ahal izateko, hainbat neurri jarraitu beharra dago. Besteak beste, etxeko hondakinak behar bezala banatu behar dira eta dagozkien edukiontzietan bota.*

## Udan ere, Okondok berdintasunaren alde egingo du



Okondoko Udalaren Berdintasun Arloak zenbait jarduera antolatu ditu udarako. Adibidez, abuztuaren 21ean, ostiralean, Inma Roiz idazle okondoarraren hitzaldia eskainiko da, 20:00etan. Bertan, autorearen liburuetan emakumeek duten garrantzia ezagutu ahal izango dute herritarrek. Bestetik, irailaren 4ko ostiralean, “Escupido Amor” izeneko antzerkia gauzatuko da, 20:00etan ere bai. Horretan, Kupidoren mitoari buruz arituko da Aitziber Izquierdo aktorea, betiere maitasun erromantikoa umorez zalantzan jarrita. Jarduerak futbol zelaiko karpan izango dira. Horien bitartez, udan ere berdintasuna lantzeko aukera izango dute okondoarrek, ondo pasatuz eta hainbat gairi buruz hausnartuz.

*El Área de Igualdad ofrecerá varias actividades en verano: una charla de Inma Roiz y el teatro "Escupido Amor"*


¿Tu negocio no aparece en ARKIDE?

Si no apareces, no existes.

**Eskaini zure zerbitzuak Okondoko etxe guztietan**

**Ofrece tus servicios en todas las casas de Okondo**

Informazioa eskatu
Infórmate sin compromiso:

**publizitatea@komunika.eus**
**688 625 394**

## Udan euskaraz mintzatzeko deia egin du Okondoko Udalak

Euskara Sailak herritarrak euskaraz hitz egitera animatu nahi ditu udan. Horretarako, urtean zehar eta Euskaraldiaren testuinguruan helarazitako gomendioak har daitezke abiapuntu, besteak beste, lehenengo hitza beti euskaraz egitea edonon eta edonorekin, inolako aurreiritzirik gabe.

*El área municipal de euskera anima a las y los vecinos a hablar en euskera también durante el verano*

## Instalación de espejos en los cruces y salidas de varios barrios

Con el objetivo de garantizar la seguridad vial de los y las vecinas de Okondo, se han colocado varios espejos en distintos lugares del municipio. Concretamente, se han instalado en las bajadas de Laburu y Basoaldu, la salida a Goiko, la de Unzabetxi y, por último, en la que se sitúa junto al restaurante Mesón Okondo.

*Udalerriko zenbait bidegurutze eta irteeretan ispiluak kokatu dira, oinezkoen segurtasuna bermatu ahal izateko*

## Okondo conmemora el 16 de agosto el Día de los y las Mayores

Dado que las personas mayores forman uno de los grupos de riesgo ante el Covid-19, el Ayuntamiento ha decidido no organizar este verano la comida y el baile que todos los años se hace en su honor. Aun así, habrá un monólogo de la mano de "El Peli" a las 19:30 en la carpa instalada en el campo de fútbol.

*Abuztuaren 16an ospatu ohi den Nagusien Eguna dela eta, herriko nagusi guztiak zoriondu nahi ditu udalak*

## Agenda 2030 proiekturarekin bat egin du udalak

Okondoko Udalak bat egin du garapen iraunkorreko helburuak udal-plangintzetan sartzeko EUDELek abiarazitako proiektuarekin. Ondorioz, Agenda 2030aren ikuspegi berri horretatik birdefinituko dira hainbat plangintza, esaterako, ingurumen, hirigintza, gizarte, berdintasun, kultur edo normalizazio linguistikoaren arlokoak.

*Okondo se ha adherido a la Agenda 2030, un proyecto que redefinirá las acciones municipales en favor del desarrollo sostenible*

## Nuevos periodos cobratorios de varios impuestos municipales



El Ayuntamiento de Okondo ha reanudado los plazos de los procedimientos tributarios con fecha del 1 de junio de 2020, aplazados debido a la crisis del Covid-19. Como consecuencia, se ha aprobado un nuevo periodo cobratorio del Impuesto de Vehículos de Tracción Mecánica del ejercicio 2020, que irá del 1 de agosto al 30 de septiembre de 2020. El cargo de los pagos domiciliados en entidades bancarias se efectuará el 11 de septiembre de este año. Asimismo, el cobro de los recibos de agua, basura y alcantarillado del 2º trimestre de 2020 seguirá su curso con normalidad. Se ha establecido un periodo recaudatorio de un mes, del 4 de agosto al 4 de septiembre de 2020, y se realizará a través del banco el día 21 de agosto.

*Zenbait udal tasa ordaintzeko epe berriak ezarri ditu Okondoko Udalak, COVID-19 birusaren eraginez atzeratu ondoren*






# AGENDA

## Udako ekintzak

## 1
### ZERGA EPE BERRIA
**Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga abuztuaren 1etik irailaren 30era kobratuko da, COVID-19ak atzeratu eta gero.**

## 4
### 2. HIRUHILEKOKO ZERGA
**Uraren, zaborraren eta estolderiaren 2. hiruhilekoko tasen kobrantza abuztuaren 4tik irailaren 4ra egingo da.**

## 16
### NAGUSIEN EGUNA
**"El Peli" umoregileak eskainiko du bakarrizketa futbol zelaian jarritako karpan.**
*19:30*

## 19
### DONACIONES DE SANGRE
**El habitual autobús de Donantes de Euskadi se situará en al aparcamiento del ambulatorio para que la ciudadanía pueda hacer su aportación en la salud comunitaria.**
*17:00-20:00*

## 21
### CHARLA
**De la mano de la escritora local Inma Roiz.** En el campo de fútbol.
*20:00*

## 24
### ABUZTU KULTURALA
**Pompero con burbujas gigantes.** En el campo de fútbol.
*12:00*

**Monólogo de Iñigo Salinero.** En el campo de fútbol.
*18:30*

**Cine "La pequeña Suiza".** En el campo de fútbol.
*21:30*

## 31
### MAGIALDIA
**7 eta 12 urte bitarteko umeentzako magia tailerrak.** Futbol zelaian jarritako karpan.
*18:00*

**Magia ikusizuna Kidam Magoarekin.** Futbol zelaian jarritako karpan.
*19:30*

## IRAILA

## 4
### TEATRO
**"Escupido Amor", humor sobre el amor romántico**. En el campo de fútbol.
*20:00*




### UDAN ERE, OKONDO BERDINTASUNAREN ALDE





**Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?**
HARPIDETU GURE KANALETARA!

WhatsApp
Jaso Whatsappean eguneko edukiak, **688 848 152** zenbakira AIARALDEA GAUR mezua bidalita!

TELEGRAM
Batu Telegramera **t.me/aiaraldeaeus** esteka bidez!



INFO+
www.aiaraldea.eus